

Euskararen Kontseilu Sektoriala - Ohiko Bilkura -

Data eta lekua:	2018ko ekainaren 18an Udaletxeko Tokiko Gobernu Batzarraren Gela
Hasiera eta amaiera ordua:	18:00-20:00

BERTARATUAK:

Talde politikoak:

LEHENDAKARITZA: Miren Azkarate (Euskarako zinegotzi ordezkaria)
Maria Luisa Garcia_PSE_EE
Zigor Etxeburua_EH BILDU
Gotzon Egia_IRABAZI

Elkarteak, Hiritarrak eta Gizarte-ospe bereziko pertsona edo kolektiboak:

Zuriñe Gonzalez_BAGERA ELKARTEA
Luis Mari Ralla_BIZARRAIN ELKARTEA
Josune Otxotorena_BERRITZEGUNEA
Mikel Aiestaran_GIPUZKOAKO OSTALARITZA ELKARTEA
Ainhoa Arruabarrena_KUTXABANK
Oihana San Jose_AEK
Andoni Iraola_REALA
Jose Jabier Murua_EUSKADIKO KUTXA
Ramon Etxezarreta

Euskara Zerbitzuaren langileak:

Edurne Otamendi (Zerbitzu burua)
Alex Aisa (Atal burua)

EZ DIRA BERTARATU:

EAJ-PNVko ordezkaria
ULIAKO AUZO ELKARTEko ordezkaria
URTXINTXA ko ordezkaria
LABeko ordezkaria
EHUko ordezkaria
BATZENeko ordezkaria
SAN SEBASTIAN SHOPS DONOSTIAko ordezkaria
Felipe Juaristi

1.- Aurreko bileraren akta onartzea

Aurreko akta onartu da.

2.-Euskararen Erabilera Normalizatzeko 5. Plangintza aldiaren ebaluazioa aurkeztea

Lehendakariak ebaluazioa egiteko aurrera eramandako urratsak azaldu eta kontseiluko ordezkari-
rei bidalitako txostenaren gaineko datu garrantzitsuenak nabarmendu ditu. Egindako balorazioa
kuantitatiboa eta kualitatiboa izan dela gogoratu du. Azken honi dagokionez, langileen iritziak
eta ekarpenak jaso nahi izan direla eta horretarako hiru bide erabili direla azaldu du.

Bagerako ordezkariak txostenean ageri den datu batekin bere zalantza azaldu du. Txostenean, zerbitzu hizkuntzari dagokion atalean, herritarrekiko bileretan eta aurkezpenetan, euskara (%46) ia gaztelania (%54) bezainbeste erabiltzen dela dio eta datu horren sinesgarritasuna zalantzan jarri du.

EHBilduko ordezkariak galdetu du bestalde, Altzan, bileretan euskaraz egiten denean, herritarrek ez badute ulertzen zer egin daitekeen. Euskara Zerbitzuko buruak adierazi du aldibereko itzulpena sistema dela hori bermatzeko modu bakarra baina beti ez dela bideragarria.

3.-Euskararen Erabilera Normalizatzeko 6. Plangintza aldia

Lehendakariak 6. Plangintza aldiaren ezaugarriak azaldu ditu kontseiluko ordezkariari bidalitako txostena oinarri hartuta. 6. Plangintza aldian, langileen hizkuntza gaitasunaz baliatuta, euskararen ezagutzatik erabilera jauzi egitea dela helburua azaldu du. Planaren jarraibideak aipatzeaz gain, metodologiaz ere jardun du lehendakariak, eta adierazi du aplikazio berria erabiliko dela 6. plangintzaldian, betetze maila ezagutu eta helburuak noraino bete diren jakiteko.

EHBilduko ordezkariak adierazi du 5. plangintzaldiak ebaluazio sinkronikoa ekarri duela bakarrik, ez dakigula nolakoa izan den garapena, intentsitatea, eboluzioa.... non geunden eta non gauden egun, alegia. Eta bestetik, aipatu du, interesgarria izango litzatekeela herritarren kexa ohikoenak kontuan hartzea eta integratzea ebaluazioan, horien bilakaera ezagutzeko.

Lehendakariak azken eskaera hori kontuan har daitekeela erantzun du, 6. plangintzaldian datu gehiago jasoko baitira.

Bestalde, hizkuntza eskakizun eta derrigortasun daten inguruan ere xehetasunak eman ditu Euskara Zerbitzuko buruak.

EHBilduko ordezkariak, 6. Plangintza aldiaren baitan, bi proposamen egin ditu:

Batetik, 2016ko Udal legeak erreferentzia egiten dionez arduradun politikoen euskara gaitasunari, komeni dela arduradun politikoak euskaraz gaitzea eta gai hau sustatzea. Hori dela eta, 6. plangintzaldian udal korporazioari buruzko inongo neurririk jasotzen ez denez, legeak dionena aurrera eramateko plangintza bat egitea proposatzen du. Euskaraldia honetan lagungarria izan daitekeela gaineratu du.

Lehendakariak azken eskaera hori kontuan hartu eta non eta nola jaso aztertuko dela adierazi du.

Bestetik, euskarazko atal gehiago izendatzeko proposamena egiten du, aukera dagoela iruditzen baitzaio EHBilduko ordezkariari.

Irabaziko ordezkariak, bestalde, azpimarratu du lortzeko moduko helburuak izatea garrantzitsua dela eta zuhurtziaz jokatzeko begi onez ikusten du. Bestalde, 6. plangintzaldian atentzioa eman dioten puntuak zerrendatu ditu: zein izaerako langileak diren DD eta HE ez duten langileak; adinez aurrera doazen 242 langile daude; elkarriketa gidatueta, oztopo nagusiak langileen adina eta ezagutza falta direla aipatzen da. Zein dira langile horiek? Lehen aipaturiko 242 langile horiek izango dira; Euskararen erabilera gehien oztopatzen duena inertzia eta ohitura falta da.

Azkenik beste bi puntu nabarmendu ditu Irabaziko ordezkariak: 620 inkesta jaso izana lorpen ikaragarria da batetik, eta bestetik, beraien hizkuntza Eskakizuna lortu ez duten langileen %15 horrek ere atentzioa behar du, bizipenak izango dituzte eta.

Ramon Etxezarretak aipatu du komeniko litzatekeela jakitea hizkuntza eskakizuna lortu ez duten horien zergatiak. Kontra daudenen kasuan, zergatik dauden aurka eta abar. Berriazko txosten bat beharko litzateke bere ustez.

Irabaziko ordezkariak gaineratu du sarritan kolektibo homogeneousa dela iruditzen zaigula baina ez dela horrela. Eta badirela ere, hirugarren edota laugarren hizkuntza eskakizuna duten langileak, lantokitik kanpo hitz bakar bat ere euskaraz egiten ez dutenak, euskaltzaleak ez direnak.

Aipatutako gaiak aztertuko direla adierazi du lehendakariak eta, gaineratu du, behin betiko plana, behin onartzen denean, helaraziko zaiela.

4.-Euskaraldia: orain arte eman diren urratsen berri ematea

Lehendakariak emandako urratsak aipatu ditu:

- Donostiako Euskaraldiaren hamaikakoa aurkeztu da.
- Udalak Euskaraldiaren aldeko erakunde adierazpena egingo du (bozeramaileen batzordeak onartuko du).
- Euskaraldiaren talde motorra hiriko hainbat sektore eta eragilerekin lanean ari da sustatzaile izan daitezen edota euskaraldia sustatu dezaten.
- Formazio saioak egitea ere aurreikusten da.

5.-Ostalaritza eta merkataritza alorrean Euskara Zerbitzuak dituen asmoen berri ematea

Lehendakariak azaldu du Parte Zaharrean euskararen erabilerak behera egin duela, bai kalean eta baita establezimenduetan ere. Egoera honi aurre egiteko, Euskara Zerbitzua ostalaritza establezimenduetan hizkuntza paisaia euskaratzeko proiektu pilotua prestatzen ari da Gipuzkoako Ostalaritza Elkartearekin batera. Egitasmoa 2019an martxan jarri nahi da.

Eta horrela, bilera bukatutzat eman da 20:00etan.